

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

2020KO EKITALDIKO URTEKO KONTU LABURTUAK

AURKIBIDEA

Egoera-balantze laburtua, 2020ko eta 2019ko abenduaren 31koa

Emaiza-kontu laburtua, 2020ko eta 2019ko abenduaren 31koa

Memoria

1. Fundazioaren izaera eta helburua
2. Urteko kontu laburtuak aurkezteko oinarriak
3. Ekitaldiko soberakina
4. Erregistro- eta balioztapen-arauak
5. Ibilgetu ukiezina
6. Ibilgetu materiala
7. Finantza-aktiboak eta -pasiboak kategorien arabera
8. Epe luzeko finantza-inbertsioak
9. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak
10. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak
11. Funts propioak
12. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak
13. Epe laburreko zorrak
14. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelako kontuak
15. Sarrerak eta gastuak
16. Entitatearen jardura
17. Bestelako informazioa
18. Inbentarioa
19. Itxieraren ondorengo egitateak

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

EGOERA-BALANTZE LABURTUA, 2020KO ETA 2019KO ABENDUAREN 31KOA

(Eurotan adierazita)

AKTIBOA	Oharra	20-12-31	19-12-31	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Oharra	20-12-31	19-12-31
<u>AKTIBO EZ-KORRONTEA</u>		<u>4.113</u>	<u>4.445</u>	<u>ONDARE GARBIA</u>		<u>4.191.188</u>	<u>3.419.078</u>
I. Ibilgetu ukiezina	5	-	-	I. Funts propioak	11	1.137.727	1.137.727
II. Ibilgetu materiala	6	1.768	2.100	I. Fundazioko zuzkidura		6.371	6.371
III. Epe luzeko finantza-inbertsioak	8	2.345	2.345	1. Fundazioko zuzkidura		6.371	6.371
				II. Erreserbak		1.131.356	1.131.356
				III. Ekitaldiko soberakina		-	-
				2. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	12	3.053.461	2.281.351
<u>AKTIBO KORRONTEA</u>		<u>4.284.362</u>	<u>3.707.993</u>	<u>PASIBO KORRONTEA</u>		<u>97.287</u>	<u>293.360</u>
I. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	9	1.183.358	986.289	I. Epe laburreko zorrak	13	7.204	5.269
II. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	10	3.101.004	2.721.704	1. Kreditu-erakundeekiko zorrak		7.015	5.062
				2. Epe laburreko bestelako zorrak		189	207
				II. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelako kontuak	14	90.083	288.091
				1. Hornitzaileak		10.594	12.599
				2. Beste hartzekodun batzuk		79.489	275.492
<u>AKTIBOA GUZTIRA</u>		<u>4.288.475</u>	<u>3.712.438</u>	<u>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</u>		<u>4.288.475</u>	<u>3.712.438</u>

Erantsitako memoria laburtuan adierazi diren 1etik 19ra bitarteko oharrek 2020ko eta 2019ko abenduaren 31ko egoera-balantze laburtuaren osagaiak dira.

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

1



MUNDUKIDE FUNDAZIOA

EMAITZA-KONTU LABURTUA, 2020KO ETA 2019KO ABENDUAREN 31KOA

(Eurotan adierazita)

	Oharra	20-12-31	19-12-31
A) Ekitaldiko soberakina			
1. Jardueraren ondoriozko sarrerak		1.468.047	2.050.682
a) Elkarre eta afiliatuen kuotak	15a	105.316	115.055
b) Sustapenetatik eta babesle eta kolaboratzaileengandik etorritako sarrerak	15b	665.312	799.282
c) Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak, dohaintza eta legatuak	15c	697.419	1.136.345
2. Laguntzen eta abarren ondoriozko gastuak		(604.809)	(1.145.619)
a) Laguntza monetarioak	15d	(565.392)	(1.020.390)
b) Laguntza ez-monetarioak	15e	(39.417)	(125.229)
3. Jarduerako bestelako sarrerak		79.003	78.724
4. Pertsonal-gastuak	15f	(777.304)	(790.045)
5. Jarduerako bestelako gastuak	15g	(161.393)	(225.840)
6. Ibilgetuaren amortizazioa	6	(332)	(332)
A.1) JARDUERAREN SOBERAKINA		3.212	(32.430)
7. Finantza-sarrerak		-	-
8. Finantza-gastuak	7	(3.140)	(3.824)
9. Kanbio-aldeak	16	(72)	36.254
A.2) FINANTZA-ERAGIKETEN SOBERAKINA		(3.212)	32.430
A.3) ZERGA AURREKO SOBERAKINA		-	-
10. Mozkinen gaineko zergak		-	-
A.4) Ondare garbiaren aldakuntza, ekitaldiko soberakinean aintzatetsia		-	-
B) Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak			
1. Jasotako dirulaguntzak	12	1.536.983	856.728
a) Dirulaguntzak		1.463.132	603.076
b) Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak		73.851	253.652
2. Beste sarrera eta gastu batzuk		-	-
B.1) Ondare garbiaren aldakuntza, zuzenean ondare garbian aintzatetsitako sarrera eta gastuengatik		1.536.983	856.728
C) Ekitaldiko soberakinari egindako birsailkapenak			
1. Jasotako dirulaguntzak	12	(764.873)	(1.192.077)
2. Beste sarrera eta gastu batzuk		-	-
C.1) Ondare garbiaren aldakuntza, ekitaldiko soberakinari egindako birsailkapenengatik		(764.873)	(1.192.077)
D) Ondare garbiaren aldakuntza, zuzenean ondare garbiari egotzitako sarrera eta gastuengatik (B.1 + C.1)		772.110	(335.349)
E) Irizpide-aldaketan ondoriozko doikuntzak		-	-
F) Hutsegiteen ondoriozko doikuntzak		-	-
G) Aldakuntzak fundazioaren zuzkiduran		-	-
H) Bestelako aldakuntzak		-	-
I) EMAITZA GUZTIRA, EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA (A.4+D+E+F+G+H)		772.110	(335.349)


Erantsitako memoria laburtuan adierazi diren 1etik 19ra bitarteko oharrek 2020ko eta 2019ko abenduaren 31ko emaitza-kontu laburtuaren osagaiak dira.

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administrazioailea



1. OHARRA. FUNDAZIOAREN IZAERA ETA HELBURUA

MUNDUKIDE FUNDAZIOA (aurrerantzean, Fundazioa) 1999ko irailaren 10eko eratze-eskritura bidez sortutako fundazio pribatua da. Arrasateko (Gipuzkoako) Zarugalde kalearen 30. zenbakian du egoitza soziala.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 2016ko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak eta 2019ko uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari eta Erregistroari buruzko Erregelamendua onartzen duenak arautzen dute Fundazioaren jarduna.

Hona hemen Fundazioaren helburuak:

- a) Hegoaldeko eskualdeetan garapen sozioekonomiko duina bultzatzea. Gutxieneko beharrianak (hala nola elikadura, osasuna, hezkuntza eta ur edangarria) aseta edukitzea jotzen dugu garapen-maila duintzat.
- b) Enpresak (ahal dela, kooperatibak) sortzen laguntzea jardun hori betetzeko potentzialtasuna duten hegoaldeko herrietan.
- c) Esperientziak trukatzea auzolanean eta gizarte-garapenerako beste esperientzietan jardun luzea duten komunitate indigenen eta Fundazioa osatzen duten erakundeen artean.

Erabilera askeko diru-sarreraren eta hirugarrenek finantzatuta ez dauden gastuen arteko aldea banatu beharreko sarreraren kontuan erregistratzea onartu zuen Patronatuaren Batzordeak 2018ko otsailaren 12an egindako bileran. Halatan, ekitaldi bakoitzeko urteko soberakina zero eurokoa izango da, eta egon litezkeen alde positiboak edo negatiboak kudeaketako bestelako gastu eta sarreraren kontuan erregistratuko dira. 2017ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ezarri zen lehenengoz irizpide hori.

2. OHARRA. URTEKO KONTU LABURTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Fundazioari ezarri behar zaion finantza-informazioaren arau-esparrua

Urteko kontu laburtu hauek Fundazioari ezarri behar zaion finantza-informazioaren arau-esparruari jarraikiz egin dituzte Patronatuko kideek. Hauek osatzen dute arau-esparru hori:

- Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik gabeko entitateetara egokitze arauak, 2011ko urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuak onetsitakoek, eta, berariaz landu gabeko gainerako kontuetarako, 2007ko abenduaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onetsi zuen Kontabilitate Plan Orokorren arauak, eta gerora egin zaizkion aldaketek.
- Kontabilitate Plan Orokorra eta berorren arau osagarriak garatzeko Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak onartutako nahitaezko arauak.

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 2016ko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak eta 2019ko uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari eta Erregistroari buruzko Erregelamendua onartzen duenak.
- Aplikatzekoak diren Espainiako gainerako kontabilitate-arauek.

b) Egoera zehaztasunez

2020ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontu laburtuak Fundazioaren kontabilitate-erregistroetan eskuratu dira, eta Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik gabeko erakundeetara egokitze arauen, 2011ko urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuak onetsitakoen, arabera aurkeztu dira. Berariaz landu gabeko gainerako kontuetarako, 2007ko abenduaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuak onetsitako KPOaren arauak aplikatuko dira.

Fundazioaren 2020ko ekitaldiko urteko kontu laburtuak 2021eko martxoaren 22an formulatu dira, eta Fundazioaren Gobernu Batzordearen - Patronatuaren esanetara jarriko dira, onar ditzan. Inolako aldaketarik egin gabe onartuko dituela uste dugu.

Fundazioaren Patronatuak 2020ko uztailaren 7an egindako bileran onartu zituen 2019ko urteko kontu laburtuak.

c) Kontabilitate-printzipioak

Urteko kontu laburtu hauek egiteko erabilitako kontabilitate-printzipio eta -irizpideak Balioztapen-arauei buruzko 4. oharrean laburtu dira. Ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan eragina duten nahitaezko kontabilitate-printzipio guztiak aplikatu dira, urteko kontu laburtu hauek egiteko.

d) Alderagarritasuna

Administratzaileek, balantze laburtuaren, emaitza-kontu laburtuaren eta urteko kontu laburtuen memoriaren kontu-sail bakoitzean, 2020ko ekitaldiko zifrez gain, aurreko ekitaldikoak ere aurkeztu dituzte, elkarrekin alderatzeko.

Bestalde, Fundazioaren irudi zehatza eskaintzeko garrantzitsuak diren aurreko ekitaldiko egoerari buruzko datu kualitatiboak ere jaso dira memoriako ataletan.

e) Ziurgabetasuna balioztatu eta estimatzearen alderdi kritikoak

Urteko kontu laburtuak egiteko, zenbait kontabilitate-estimazio erabili ditugu, eta iritziak, estimazioak eta hipotesiak egin ditugu, Fundazioaren balioztapen-arauek aplikatzeko prozesuan. Hauek dira erantsitako urteko kontu laburtuetan eragin nabarmena izan duten estimazioak:

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2020ko abenduaren 31koa

- Sozietateak urtero egiaztatzen du narriadura-zantzuak dituzten aktiboetan halakorik badagoen, eta, ondorioz, haien zenbateko berreskuragarria zenbatesten du.
- Ibilgetu ukiezina eta ibilgetu materiala balio-bizitzari estimatzen zaion urte-kopuruaren arabera amortizatzen ditu Fundazioak. Ondorioz, ibilgetu horiek funtzionamenduaren, erabileraren eta luperketaren eraginez jasaten duten balio-galera zenbatetsi behar du, haietan eraginik izan lezaketen zaharkitze tekniko eta komertziala ere bazter utzi gabe.

Urteko kontu laburtuak egiteko egunean aztertutako egitateen gainean eskura dagoen informaziorik onenaren arabera egin ditugu estimazio hauek. Hala ere, baliteke etorkizuneko gertaeren ondorioz hurrengo ekitaldietan estimazioak aldatu behar izatea (igotzeko edo jaisteko). Horretarako, prospekzioa erabiliko genuke, estimazio-alaketak etorkizuneko galdu-irabazien kontuetan izan lezakeen eragina aintzatetsiz.

f) Diru funtzionala

Urteko kontu laburtu hauek eurotan aurkeztu ditugu, horixe baita Fundazioak diharduen eremu ekonomikoan erabilitako dibisa.

g) Kontu-sailak pilatzea

Balantze laburtuko eta emaitza-kontu laburtuko kontu-sail batzuk pilatuta aurkeztu ditugu, ulergarriagoak izateko. Dena den, nahitaezko informazio desagregatua memorian sartu da, kasuan kasuko oharretan.

h) Ondarean egindako zuzenketa onoriozko doikuntzak

2020ko eta 2019ko ekitaldietako urteko kontu laburtuak egitean ez dugu aurkitu aurreko ekitaldiko kontuetako zenbatekoak (ekitaldi honetako urteko kontuetan alderatzeko aurkeztu direnak) berriro zehaztu behar izateko moduko hutsegite nabarmenik.

i) Jarduneko enpresaren printzipioa

Urteko kontu laburtu hauek jarduneko enpresaren printzipioari jarraikiz egin dituzte Fundazioaren administratzaileek.

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

j) COVID-19aren eragina urteko kontu laburtuetan

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia izendatu zuen koronabirusaren gaitzak (COVID-19ak) eragindako osasun-larrialdia. Pandemiak nazioan nahiz nazioartean izandako hedapen azkarrak inoiz ez bezalako osasun-krisialdia ekarri du, eta, zalantzarik gabe, horrek eragina izan du bertako eta munduko ingurune makroekonomikoan. Egoera horri aurre egiteko, ondoko ondoko hainbat alarma-egoera aldarrikatu ditu Espainiako Gobernuak, eta ezohiko eta premiazko neurri batzuk onartu ditu, COVID-19aren inpaktu ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko. Era berean, beste herrialde batzuetako gobernuek ere antzera jokatu dute, eta nork bere neurriak ezarri ditu. Urteko kontu hauek formulatzeko datan, Espainiako Gobernuak 2020ko urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez aldarrikatutako alarma-egoera dago indarrean, 2021eko maiatzaren 9ra arte luzatu dena.

COVID-19ak baldintzatu egin ditu gure bizitzak. Bizitza ugari galtzea ez ezik, pandemia honek oso ondorio larriak ekarri ditu ikuspegi sozio-ekonomikotik ere, eta aurrez inoiz bizi gabeko egoera batean murgildu gaitu.

Ondorio sozialak oso handiak ari dira izaten guztiontzat, konfinamendu-aldi luzeak jasan behar izan baititugu —haurrentzat bereziki gogorrak—. Alabaina, inpaktua larriagoa da eta izango da talderik kalteberenetan —etxerik gabeko edo kaleko pertsonak, genero-indarkeria jasaten duten emakumeak, pertsona nagusiak, desgaitasunen bat duten pertsonak, migratzaileak, langile informalak, etxeko eta aldi baterako langileak—, sistematik kanpo baitaude guztiak. Zalantzarik gabe, desberdinkeriak areagotu egin dira pandemiaren ondorioz, eta pertsonarik zaugarrienei eragin die batez ere.

Ondorio ekonomikoak ere oso latzak ari dira izaten, hala arlo pribatuan nola publikoan.

Fundazioan, COVID-19ak izugarri baldintzatu du 2020an gure programetan gauzatutako jarduera. Pandemiak herrialde bakoitzean sortu dituen baldintzetara moldatu behar izan gara, geure helburuari eusteko: ahalik eta pertsona gehienei laguntzea, bizitza hobea bat bilatzen eta, horrela, gizarte bidezko eta jasangarriago baterantz jotzen.

Testuinguru horretan, Fundazioaren Batzorde Delegatua pandemiaren ondorioak kudeatzeko organo gisa eratu zen apirilaren 6ko bileran, eta erabaki zuen hiru konpromisotan oinarrituko zela, pandemiari aurre egiteko.

1) Gure pertsonetikiko konpromisoa

Gure 2018-2021 Plan Estrategikoaren 2. erronkan jasota dagoenez, berretsi egin zen une honetan Fundazioan lanean ari diren langileei eusteko konpromisoa. Helburua da sinatutako akordioen datak eta, ahal dela, hitzartutako neurriak betetzea.

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2020ko abenduaren 31koa

2) Abian diren programekiko konpromisoa

Fundazioa Mozambiken, Etiopian, Brasilen, Kolonbian eta Ekuadorren ari da lanean. Herrialde horietan, entitate aliatuekin lankidetzan jarraitzea izan da gure konpromisoa (osasun- eta segurtasun-protokoloak errespetatuz beti), eta gehien behar duten pertsonen ondoan egotea. Krisi honek gogorren astinduko dituen pertsonen laguntzea, alegia.

3) Gure inguruarekiko konpromisoa

Babesten gaituzten kooperatibekiko, bazkide eta dohaintza-emailekiko eta erakunde finantzatzailekiko konpromisoak efizientziarik handieneko irizpideak erabiliz lan egitera bultzatu gaitu (are gehiago), eta, baliabideak egoki erabiliz, ahalik eta onuradun gehienengana heltzen saiatu gara. Horrenbestez, Batzorde Delegatuak ekitaldirako aurrekontua berrikusi zuen maiatzeko bileran, eta diru-sarrerak eta gastuak doitu egin zituen, pandemiak sortutako egoera berrira moldatzeko.

Urtean zehar, COVID-19ak larriki eragin dio Hegoaldeko herrialdeetan kooperanteen bidez laguntzeko ereduari. Aurreikusitako jarduera ugari ezin izan ditugu gauzatu. Gainera, programatuta zeuden aurrez aurreko prestakuntza-saiorik gehienak online prestakuntza bihurtu behar izan dira. Eta diagnostiko- eta laguntza-jarduerak ere online egin dira.

Antolamenduari begira, mugatu egin behar izan ditugu bidaiak, aurrez aurreko bilerak eta boluntarioen eta praktiketako ikasleen jarduera, osasuna lehenesteko. Egoitzan, konfinamendu-aldia bete ondoren, etxeko eta bulegoko lana txandakatu dugu. Afrikako 3 kooperante ABEEEn egon dira maiatzetik abuztura bitartean. Brasilgo, Kolonbiako eta Ekuadorreko kooperanteek, berriz, konfinamendu luzeak egin behar izan dituzte, eta onlineko lanarekin eutsi diote beren jarduerari.

3. OHARRA. EKITALDIKO SOBERAKINA

2020ko abenduaren 31n, Fundazioak emaitza orekatua du, haren jarduera goitik behera finantzatuta baitago.

Lortutako erabilera askeko sarrerek baldintzatzen dute sarreraren eta gastuen aurrekontuaren oreka.

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

7

Hona hemen, eurotan, 2020ko eta 2019ko ekitaldietako erabilera askeko sarrerak eta ustiapeneko defizita edo superabita.

KONTZEPTUA	2020	2019
ERABILERA ASKEKO SARRERAK	782.177	993.061
-Bazkide eta afiliatuen kuotak	105.315	115.055
-Sustapenetatik eta babesle eta kolaboratzaileengandik etorritako sarrerak	665.312	799.282
-Jarduerako bestelako sarrerak	11.550	78.724
-Finantza-sarrerak	-	-
SARRERA PROPIOEN BIDEZ FINANTZATUTAKO JARDUERA	(708.326)	(739.409)
Ustiapeneko (-) DEFIZITA / (+) SUPERABITA	73.851	253.652
HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO SARRERAK (12. oharra)	73.851	253.652
DEFIZITA HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO SARREREZ ESTALTZEA	-	-
EKITALDIKO EMAITZA	-	-

4. OHARRA. ERREGISTRO- ETA BALIOZTAPEN-ARAUAK

Urteko kontu laburtuak egiteko, erregistro- eta balioztapen-arau nagusi hauek erabili ditugu, 2011ko urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuak onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra Irabazteko Asmorik gabeko Entitateetara Egokitze Arauen eta, berariaz landu gabeko gainerako kontuetarako, 2007ko abenduaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onetsitako KPOaren arauen eta ondoren egin zaizkion aldaketen arabera:

a) **Ibilgetu ukiezina**

Hasiera batean, eskuratzeko edo ekoizteko kostuaren arabera aintzatesten dira aktibo ukiezinak. Ondoren, amortizazio metatua eta izan duten narriaduraren ondoriozko galerak kentzen zaizkio kostuari.

Informatika-aplikazioak

Enpresa kudeatzeko oinarritzko informatika-aplikazioak eta oinarritzko informatika-sistemak eskuratzeko eta garatzeko kostuak egoera-balantzeko «Ibilgetu ukiezina» epigrafean erregistratzen dira. Informatika-sistemen mantentze-kostuak sortu diren ekitaldiko galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira.

Informatika-aplikazioen amortizazioa linealki egiten da, aplikazioa ustiatzen hasi ondorengo 4 urteko epealdian.

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehenakaria

Idazkaria

Administratzailea

b) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialeko ondasun guztiak erabilera propioakoak dira, eta, hasiera batean, eskuratzeko edo ekoizteko kostuaren arabera aintzatesten dira. Ondoren, amortizazio metatua eta balio-narriaduragatik aintzatsitako edozein galera kentzen zaizkio kostuari.

Produktibitatea, edukiera edo eraginkortasuna handitzea nahiz ondasunen balio-bizitza luzatzea eragiten duten zabalkuntza, modernizazio edo hobekuntzen kostuak kapitalizatzeko, ondasun horien kosturik handiena hartzen da aintzat. Balio-bizitza handitzeko balio ez duten konponketak eta mantentze-gastuak sortu diren ekitaldiko emaitza-kontuaren kargura erregistratzen dira.

Metodo linealari jarraikiz amortizatzen du Fundazioak ibilgetu materiala, eta aktiboen kostua balio-bizitzako urte hauen artean banatzen du:

KONTZEPTUA	Balio-bizitza zenbatetsia (urteak)
Bestelako instalazioak	7
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	4

Ibilgetu materialeko elementuak besterenduz sortzen den irabazia edo galera ateratzeko, eragiketa hau egiten da: salmentagatik jasotako zenbatekoa ken besterendutako aktiboaren kontabilitate-balioa.

c) Aktiboen balioaren narriadura

Egoera-balantzea egiterakoan edo balio-galera dagoela susmatzen den guztietan, aktibo materialen liburuetao zenbatekoak berrikusten ditu Fundazioak, balioa narriatzearen ondorioz aktibo horiek galerarik izan duten ikusteko. Galera egon dela susmatzen bada, aktiboaren zenbateko berreskuragarria kalkulatzeko da, balioa narriatzeagatik galeraren norainokoa kalkulatzeko (baldin badago).

Aktibo baten zenbateko berreskuragarria liburuetao zenbatekoa baino txikiagoa dela ikusten bada, aktiboaren liburuetao zenbateko zenbateko berreskuragarriaraino murrizten da, eta balioa narriatzearen ondoriozko galeraren zenbateko ekitaldiko gastu gisa aintzatesten da.

Balioa narriatzearen ondoriozko galerak eragina izango badu gerora, aktiboaren liburuetao zenbateko handitu egiten da, zenbateko berreskuragarriaren zenbatespen berrikusiraino. Alabaina, liburuetao zenbateko handitu horrek ezin izango du gaintu aurreko ekitaldietan aktiboari balioa narriatzearen ondoriozko galerarik aintzatsi ez balitzaio emango zitzaiokeen liburuetao zenbateko. Balioa narriatzearen ondoriozko galeraren lehengoratzera sarrera gisa aintzatesten da, berehala.

2020ko eta 2019ko ekitaldietan, Fundazioak ez du ikusi ibilgetuaren narriaduragatik galera erregistratzeko zantzurik.

d) Finantza-tresnak – Finantza-aktiboak

Finantza-aktiboak, hasiera batean, eskuratze-kostuan erregistratzen dira, eragiketari dagozkion kostuak barne hartuta. Sozietateak honela sailkatzen ditu bere finantza-inbertsio korranteak eta ez-korranteak:

1. **Maileguak eta kobratzeko partidak.** Enpresako trafiko-eragiketetan saldutako ondasunen eta emandako zerbitzuen bidez Sozietateak sortzen dituen finantza-aktiboak dira. Kategoria horretako aktiboak arrazoizko balioaren arabera balioztatzen dira, balantzean aintzatesten diren unean. Emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa eta zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-gastuen batura da balio hori. Ondoren, aktiboak «kostu amortizatuan» balioztatzen dira, interes-tasa efektiboa erabiliz.

Fundazioak eragiketa hau egiten du hornidurak erregistratzeko: kobratzeko kontuetatik berreskuratzea espero duen zenbatekoa (eragiketaren jatorrizko interes-tasa efektiboari kendu ondoren) ken erregistratuta duten kontabilitate-balioa.

2. **Muga-egunera arte eutsitako inbertsioak.** Zenbateko finkoa edo ezaguna kobratzekoak izanik, muga-eguna finkatuta dutenak eta Fundazioak muga-egunera arte eusteko asmoa duenak dira. Kategoria horretako aktiboak arrazoizko balioaren arabera balioztatzen dira, hasiera batean. Ondoren, kostu amortizatuan balioztatzen dira, eta sortutako interesak emaitza-kontuan aintzatesten dira, interes-tasa efektiboa erabiliz. Hauxe hartzen da kostu amortizatutzat: hasierako kostua ken printzipalaren kobrantzak gehi edo ken hasierako zenbatekoaren eta itzultze-balioaren arteko aldearen amortizazio metatua, narriaduraren edo ez-ordaintzearen ondorioz gerta daitezkeen murrizketak kontuan hartuta. Interes-tasa efektiboa, oster, hauxe da: aktiboa eskuratzeko egunean finantza-tresna baten hasierako balioa eta zenbatetsitako eskudiru-fluxu guztiak parekatzen dituen eguneratze-tasa. Parekatzea finantza-tresnari geratzen zaion bizitzan zehar eta kontzeptu guztietan egiten da.

Fundazioak ez du halako finantza-inbertsiorik, 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n.

3. **Negoizatzeko eutsitako finantza-inbertsioak.** Epe laburrean saltzeko eta etekinak lortzeko eskuratutakoak dira. Kategoria horretako pasiboak arrazoizko balioaren arabera balioztatzen dira hasiera batean, eta balioaren gorabeherak emaitza-kontuko «Finantza-gastuak» edo «Finantza-sarrerak» epigrafean erregistratzen dira.

Fundazioak ez du halako finantza-inbertsiorik, 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n.

4. **Galdu-irabazietan aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan.** Aktibo horiek hauetako ezaugarri batzuk dituzte:

- Fundazioak epe laburrean mozkinak lortzea espero du, prezioaren gorabeheren ondorioz.
- Hasierako aintzatespenetik aktiboen sailkapen horretan sartu dira, betiere merkatu aktibo batean kotizatzen badute edo beren arrazoizko balioa modu fidagarrian zenbatetsi ahal bada.

Kategoria horretako finantza-aktiboak arrazoizko balioaren arabera agertzen dira egoera-balantzean, eta balioaren gorabeherak galdu-irabazien kontuko «Finantza-gastuak» edo «Finantza-sarrerak» epigrafean erregistratzen dira.

Fundazioak ez du halako finantza-inbertsiorik, 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n.

5. **Enpresa taldekide eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak** Enpresa bat taldeko partaide izateko, ezinbestekoa da bien artean zuzeneko edo zeharkako kontrol-harremana egotea. Merkataritza Kodeak sozietate-taldee buruzko 42. artikuluan aurreikusitakoen antzekoa izan behar du harreman horrek. Enpresa elkartua izateko, berriz, taldeak eragin nabaria izan behar du haren gainean, baina ezin da mendeko enpresatzat edo sozietate taldeaniztuntzat hartu. Beraz, enpresa elkartuen finantza-erabakietan eta erabaki operatiboetan parte hartzeko ahalmena du taldeak, baina ezin ditu erabat kontrolatu edo batera kontrolatu.

Sozietate taldekide eta elkartuetan egindako inbertsioak kostu-balioaren arabera balioztatzen dira hasieran; hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioari transakzio-gastuak gehituta. Ondorengo balioztapena egiteko, berriz, narriaduraren ondoriozko balioztapen-zuzenketen zenbateko metatua kenduko zaio kostuari, dagokionean.

Inbertsioen balioztapen-zuzenketaren zenbatekoa haien kontabilitate-balioaren eta zenbateko berreskuragarriaren arteko aldea da. Zenbateko berreskuragarria ateratzeko, bi zenbateko baitan handiena hartzen da: alde batetik, arrazoizko balioa ken salmenta-gastuak eta, bestetik, inbertsioak eragindako etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioa. Bi modu daude fluxu horiek kalkulatzeko: lehena, partaidetzapeko enpresaren dibidendu-banaketaren bidez eta enpresa horretan egindako inbertsioa besterentzearen edo kontuetan baja ematearen bidez jasotzea espero dena estimatzea, eta, bigarrena, partaidetzapeko enpresari ohiko jardueretan nahiz besterentzearen edo kontuetako bajaren bidez aurreikusten zaizkion fluxuen partaidetza estimatzea. Sozietateak, horrelako aktiboen narriaduraren estimazioa egiteko, partaidetzapeko sozietatearen ondare garbia hartzen du aintzat, balioztapen-egunean dauden gainbalio tazituen arabera zuzenduta. Narriaduraren ondoriozko balioztapen-zuzenketak eta, dagokionean, haien lehengoratzea, gastu edo sarrera gisa erregistratzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan.

6. **Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak.** Aurreko 5 kategorietan sartzen ez diren guztiak dira, eta kapitaleko finantza-inbertsioek osatzen dute ia erabat. Inbertsio horiek arrazoizko balioan daude egoera-balantzean jasota. Kotizatzen ez diren sozietateen kasuan, balio hori bestelako bideak erabiliz zehazten da, hala nola antzeko transakzioekin egindako konparazioaren bidez edo, behar beste informazio izanez gero, espero diren kutxa-fluxuak eguneratzearen bidez. Arrazoizko balioaren aldaketak ondare garbian erregistratzen dira zuzenean, harik eta finantza-aktiboa balantzetik kendu edo narriatzen den arte. Une horretan, hala aintzatetsitako zenbatekoa galdu-irabazien kontuan egotziko da. Zentzu horretan, narriadura iraunkorra dagoela erabakitzen da, urte eta erdiko epean aktiboaren kotizazio-balioa % 40tik gora murrizten denean eta balioak gora egiten ez duenean.

Kotizatu gabeko sozietateen kapitaleko finantza-inbertsioak eskuratze-kostuaren arabera balioztatzen dira, baldin eta haien arrazoizko balioa ezin bada modu fidagarrian neurtu.

Fundazioko Zuzendaritzak eskuratzean zehazten du aktibo bakoitzaren sailkapenik egokiena, eta ekitaldi bakoitzaren bukaeran berrikusi egiten du.

e) Finantza-tresnak – Finantza-pasiboak

Finantza-pasibo korranteak eta ez-korranteak honela sailkatzen dira, balioztapenari begira:

1. **Zordunketak eta ordaintzeko partidak.** Eragiketa komertzialek eta ez-komertzialek eragindako ordaintzeko kontuak arrazoizko balioaren arabera balioztatzen dira hasiera batean. Ondoren, kostu amortizatuan balioztatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz.

Interesak sortzen dituzten maileguak, obligazioak eta antzekoak jasotako eskudiruaren arabera balioztatzen dira hasiera batean, jaulkipen-kostu zuzenak kenduta, egoera-balantzearen «Finantza-zorra» epigrafean. Finantza-gastuak sortzearen irizpidearen arabera kontabilizatzen dira emaitza-kontuan, interes efektiboaren metodoa erabiliz, eta, gauzatu diren ekitaldian likidatzen ez diren neurrian, tresnaren liburu-tako zenbatekoari gehitzen zaizkio. Bestalde, finantza-errentamenduko kontratuek eragindako ordaintzeko kontuak kontratuko kuoten egungo balioan erregistratzen dira epigrafe horretan.

2. **Negoiazteko eutsitako finantza-pasiboak.** Batez ere epe laburrean berreskuratzeko xedez jaulkitakoak dira, edo epe laburrean mozkinak lortzeko kudeatutakoak. Katetoria horretako pasiboak arrazoizko balioaren arabera balioztatzen dira hasiera batean, eta balioaren gorabeherak emaitza-kontuko «Finantza-gastuak» edo «Finantza-sarrerak» epigrafean erregistratzen dira.

3. **Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten beste finantza-pasibo batzuk arrazoizko balioan.** Pasibo horiek hauekako ezaugarri batzuk dituzte:

- Sozietateak epe laburrean mozkinak lortzea espero du, prezioaren gorabeheren ondorioz.
- Hasierako aintzatespenetik pasiboen sailkapen horretan sartu dira, betiere merkatu aktibo batean kotizatzen badute edo beren arrazoizko balioa modu fidagarrian zenbatetsi ahal bada.

Katetoria horretako finantza-pasiboak arrazoizko balioaren arabera agertzen dira egoera-balantzean, eta balioaren gorabeherak galdu-irabazien kontuko «Finantza-gastuak» edo «Finantza-sarrerak» epigrafean erregistratzen dira.

f) Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak

Eskudiruak eta bestelako bitarteko likido baliokideek honako hauek hartzen dituzte bane: kutxako eskudirua, ageriko kontu korranteetako saldoak eta kreditu-erakundeetan berehala erabiltzeko aurrezki-kontuetako saldoak. Halaber, kontzeptu horren barruan sartzen dira likidezia handiko epe laburreko beste inbertsio batzuk ere, baldin eta eskudiruko kopuruetan erraz bihurtzeko modukoak badira eta balio-aldaketak izateko arrisku txikia badute. Eskurapen-datatik 3 hilabetetik beherako muga-egunak dituzten inbertsioak ere multzo horretan daude.

g) Saldoen sailkapena: korronteak eta ez-korronteak

Egoera-balantze laburtuan saldoak korronteen eta ez-korronteen artean daude sailkatuta. Sozietateak ustiapen-ziklo normalean saldu, kontsumitu, ordaindu edo gauzatzea espero dituenak dira saldo korronteak. Sailkapen horrekin bat ez datozen saldoak, berriz, ez-korronteak dira.

h) Dirulaguntzak

Fundazioak irizpide hauek erabiltzen ditu eman dizkioten dirulaguntzak kontabilizatzeko:

- **Ustiapeneko dirulaguntza generikoak:** Fundazioak egiten dituen proiektuekin lotura zuzena ez duten dirulaguntzak dira. Eman ostean, emaitzetan ordaintzen dira, Fundazioak erabakitzen duenean bertan ezarritako baldintzak bete direla eta, beraz, ez dagoela kobratzeko arrazoizko zalantzarik. Bestalde, emaitzetan egozten dira, epealdi bakoitzean dirulaguntzaren ondoriozko sarreraren eta diruz lagundutako gastuen artean kontabilitate-korrelazio egokia dagoela bermatzeko.
- **Proiektu jakinetarako ustiapeneko dirulaguntzak:** Proiektu jakin baterako ematen diren dirulaguntzak dira. Halakoetan, Fundazioak proiektuaren gastuak sortu ahala egozten ditu sarrerak emaitzetan, dirulaguntzaren ondoriozko sarreraren eta diruz lagundutako gastuen artean kontabilitate-korrelazio egokiari eusteko asmoz. Proiektuen burutze-maila txikiagoa bada dirulaguntzaren bidez lortutako sarrerak baino, Fundazioak periodifikatu egiten ditu sarrerak.

Dirulaguntza itzulgarriak pasibo gisa erregistratzen dira, ez-itzulgarri bihurtu arte.

i) Mozkinen gaineko zerga

2004ko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak arautzen du Fundazioa, irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoak.

Horrenbestez, ez du helburu soziala osatzen duten jardueretatik lortutako emaitzengatik sozietateen gaineko zerga zertan ordaindu, ez eta erakundearen ondare higigarri eta higiezinen ondoriozkoengatik ere.

j) Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak dagozkien ondasun eta zerbitzuen korronte errealearen arabera egozten dira, beraietatik datorren diru- edo finantza-korrontea noiz gertatu den kontuan hartu gabe.

Dena den, zuhurtasun-printzipioari jarraikiz, ekitaldia itxi den egunean lortutako mozkinak bakarrik kontabilizatzen ditu Fundazioak. Aurreikusteko modukoak diren arriskuak eta galerak, berriz, horien berri izan bezain laster kontabilizatzen ditu, nahiz eta behin-behinekoak izan.

Hona hemen Fundazioaren sarrera-iturri nagusiak:

- Administrazio publikoen dirulaguntzak. AVCD-GLEA (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia), AECID (Garapenerako Lankidetzaren Agentzia Espainola) eta Gipuzkoako Foru Aldundia dira garrantzitsuenak.
- Kooperatiben dohaintzak, batez ere Mondragonen ingurukoak.
- GKE-en dohaintzak.
- Partikularren dohaintzak.

Gastuen partidan, Fundazioaren dirulaguntzek osatzen dute zatirik garrantzitsuenak. Kontu horretan sartzen dira Fundazioak elkar-lankidetzako proiektuak finantzatzeko eta laguntzeko egiten dituen gastuak, dela eskualde-garapenerako programetan, dela antolamendu sozioekonomikoa indartzeko programetan.

k) Ingurumenean eragiten duten enpresa-jarduerak

Sozietatearen ohiko jarduerak ingurumenean eragin ditzakeen ondorioak ezabatu, mugatu edo kontrolatzera bideratutako sistema, ekipamendu eta instalazioak eskuratzearen kostuak ibilgetuan egindako inbertsioetat hartzen dira.

Ingurumenari loturiko gainerako gastuak, hala nola ibilgetuko elementuak eskuratzearekin zerikusirik ez dutenak, ekitaldiko gastutzat hartzen dira.

Ingurumenaren alorreko horniduretan, dagokionean, itxiera-egunean gertagarritzat edo benetakotzat jotzen diren ingurumen-gastuak sartzen dira, nahiz eta ez jakin, zehazki, zenbatekoak izango diren eta noiz sortuko diren. Ondorioz, itxierako egunean dagoen informazioaren arabera egin daitekeen balioztapenik onena adierazten du hornikuntza horien zenbatekoak (hornikuntzarik badago).

5. OHARRA. IBILGETU UKIEZINA

Ibilgetu ukiezinak ez du mugimendurik izan 2020ko eta 2019ko ekitaldietan, eta honela dago osatuta, eurotan:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
KOSTUA:	
Informatika-aplikazioak	15.930
Kostua guztira	15.930
AMORTIZAZIO METATUA:	
Informatika-aplikazioak	(15.930)
Amortizazioa guztira	(15.930)
BALIO GARBIA	-

6. OHARRA. IBILGETU MATERIALA


2020ko eta 2019ko ekitaldietan hauxe izan da Fundazioaren ibilgetu materialeko kontuen kontabilitate-mugimendua, eurotan:

KONTZEPTUA	18-12-31	Gehikuntzak	19-12-31	Gehikuntzak	20-12-31
KOSTUA:					
Altzariak	3.316	-	3.316	-	3.316
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	1.129	-	1.129	-	1.129
Kostua guztira	4.445	-	4.445	-	4.445
AMORTIZAZIO METATUA:					
Altzariak	(884)	(332)	(1.216)	(332)	(1.548)
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	(1.129)	-	(1.129)	-	(1.129)
Amortizazioa guztira	(2.013)	(332)	(2.345)	(332)	(2.677)
BALIO GARBIA	2.432	(332)	2.100	(332)	1.768

Fundazioak Arrasateko Gizabidea Fundazioaren lokal batean gauzatzen zuen bere jardura. Baina, 2020ko ekitaldian, herri horretako Iturriotz kalearen 27.era joan da. Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren da lokal hori. 2020ko urriaren 19an, iraupenik gabeko prekarioko kontratu bat sinatu dute bi aldeek.

Erantsitako egoera-balantzearen epigrafe horretan, 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n erabat amortizatuta eta oraindik erabilgarri dauden elementuak sartu dira. Hurrengo taulan azaltzen da beraien amortizazio metatua.

KONTZEPTUA	2020	2019
Altzariak	-	-
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	1.129	1.129
Guztira	1.129	1.129



7. OHARRA. FINANTZA-AKTIBOAK ETA -PASIBOAK KATEGORIEN ARABERA

Finantza-aktiboak kategorien arabera

a) Finantza-aktiboen sailkapena kategorien arabera

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, hauxe da finantza-aktiboen kategorien eta moten arabera sailkapena, eurotan:

FINANTZA-INBERTSIOAK	20-12-31		19-12-31	
	Ez-korrontea	Korrontea	Ez-korrontea	Korrontea
Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak				
Ondare-tresnak	2.345	-	2.345	-
Guztizko partziala	2.345	-	2.345	-
Maileguak eta kobratzeko partidak				
Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak				
Bezeroak salmentengatik eta emandako zerbitzuengatik	-	-	-	2.401
Hainbat zordun	-	312.978	-	309.279
Guztizko partziala	-	312.978	-	311.680
Guztira	2.345	312.978	2.345	311.680


b) Galdu-irabazi garbiak finantza-aktiboen kategorien arabera

2020ko eta 2019ko ekitaldietan, hauxe da, eurotan, galdu-irabazi garbien zenbatekoa, finantza-aktiboen kategorien arabera:

KONTZEPTUA	Maileguak eta kobratzeko partidak	
	2020	2019
Finantza-sarrerak	-	-
Guztira	-	-

c) Muga-egunen arabera sailkapena

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, urtebeteko muga-eguna edo txikiagoa daukate maileguak eta kobratzeko partidak atalean sailkatutako finantza-aktiboek.



Finantza-pasiboak kategorien arabera

a) Finantza-pasiboen sailkapena kategorien arabera

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, hauxe da finantza-pasiboen kategorien eta moten arabera sailkapena, eurotan:

FINANTZA-PASIBOAK	Pasibo korrontea	
	20-12-31	19-12-31
Zordunketak eta ordaintzeko partidak		
Kreditu-erakundeekiko zorrak	7.015	5.062
Beste finantza-pasibo batzuk	189	207
Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelako kontuak		
Hornitzaileak	10.594	12.599
Ordaindu beharreko bestelako kontuak	40.716	242.105
Guztira	58.514	259.973

b) Galdu-irabazi garbiak finantza-pasiboen kategorien arabera

2020ko eta 2019ko ekitaldietan, hauxe da, eurotan, galdu-irabazi garbien zenbatekoa, finantza-pasiboen kategorien arabera:


KONTZEPTUA	Zordunketak eta ordaintzeko partidak	
	2020	2019
Finantza-gastuak	3.140	3.824
Guztira	3.140	3.824

c) Muga-egunen arabera sailkapena

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, urtebeteko muga-eguna edo txikiagoa daukate finantza-pasiboak.

8. OHARRA. EPE LUZEKO FINANTZA-INBERTSIOAK

Sozietateak «Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak» kategorian sailkatu dituen ondare-tresnek osatzen dute egoera-balantze laburtuko epe luze finantza-inbertsioen atala.



MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2020ko abenduaren 31koa

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, hauxe da ondare-tresnen xehetasuna, eurotan:

PARTAIDETZAPEKOA	20-12-31	19-12-31
Fiare Banka Etikoa	633	633
Osarten S. Coop.	1.712	1.712
Guztira	2.345	2.345

Fundazioak partaidetza minoritarioa du sozietate horietan.

9. OHARRA. ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRATZEKO BESTELAKO KONTUAK

Hona hemen 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n zordun komertzialek eta kobratu beharreko beste kontu batzuek zuten xehetasuna, eurotan:

KONTZEPTUA	20-12-31	19-12-31
Bezeroak salmentengatik eta emandako zerbitzuengatik	-	2.401
Hainbat zordun	312.799	308.949
Langileak	179	330
Administrazio publikoekiko bestelako maileguak	870.380	674.609
Guztira	1.183.358	986.289

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, administrazio publikoekiko saldo zorduna kontzeptu eta zenbateko hauei dagokie:

KONTZEPTUA	20-12-31	19-12-31
Emandako dirulaguntzak	870.380	674.609
Atxikipenak eta konturako ordainketak	-	-
Guztira	870.380	674.609

Hauxe da, eurotan, emandako dirulaguntzetatik kobratzeko dauden zenbatekoen xehetasuna, proiektuen arabera banakatuta:

PROIEKTUA	20-12-31	19-12-31
2018 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) M205 Kolonbia Coemprender	76.657	153.315
2018 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) K197 K2 Brasil hegoaldea	356.944	356.944
2019 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) A M212 Gehikoop	82.175	164.350
2020 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) K224 Brasil Ceará	354.604	-
Guztira	870.380	674.609

10. OHARRA. ESKUDIRUA ETA BESTELAKO AKTIBO LIKIDO BALIOKIDEAK

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, kutxa eta bankuetako saldoek osatzen dute egoera-balantzeko «Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak» epigrafe osoa.

11. OHARRA. FUNTS PROPIOAK

2020ko eta 2019ko ekitaldietako mugimendua

Hona hemen 2020ko eta 2019ko ekitaldietan funts propioetan izandako kontabilitate-mugimenduak, eurotan:

KONTZEPTUA	Saldoa 18-12-31n	Gehikuntzak	Saldoa 19-12-31n	Gehikuntzak	Saldoa 20-12-31n
Fundazioko ondarea	6.371	-	6.371	-	6.371
Borondatezko erreserbak	1.131.356	-	1.131.356	-	1.131.356
Galdutirabaziak	-	-	-	-	-
Guztira	1.137.727	-	1.137.727	-	1.137.727

«Borondatezko erreserbak» erabilera askekoak dira.

12. OHARRA. JASOTAKO DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, «Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak» atalean sartu dira egin gabe dauden proiektuentzat jasotako dirulaguntzengatik sarrerak eta Fundazioak metatutako defizita edo superabita; hau da xehetasuna, eurotan:

2020ko ekitaldiko mugimendua

PROIEKTUA	19-12-31	Altak	Bajak	Kanbio- aldeak	Uko eginda	20-12-31
Proiektu jakinetarako jasotako dirulaguntzak	1.440.814	1.463.132	(764.873)	-	-	2.139.073
Defizita estaltzeko hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak (1. eta 3. oharra)	840.537	73.851	-	-	-	914.388
Guztira	2.281.351	1.536.983	(764.873)	-	-	3.053.461

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administrazioa

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2020ko abenduaren 31koa

2019ko ekitaldiko mugimendua

PROIEKTUA	18-12-31	Altak	Bajak	Kanbio- aldeak	Uko eginda	19-12-31
Proiektu jakinetarako jasotako dirulaguntzak	2.029.815	603.076	(1.136.345)	(44.923)	(10.809)	1.440.814
Defizita estaltzeko hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak (1. eta 3. oharrek)	586.885	253.652	-	-	-	840.537
Guztira	2.616.700	856.728	(1.136.345)	(44.923)	(10.809)	2.281.351

Hauxe da proiektu jakinetarako jasotako dirulaguntzen xehetasuna 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, eurotan:

PROIEKTUA	20-12-31	19-12-31
ERAKUNDE PUBLIKOAK		
2017 Bizkaiko Foru Aldundia (BFA) K177 Brasil hegoaldea	8.727	28.563
2018 Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID) M199 Cabo Delgado	285.013	328.116
2018 Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA) K194 Brasil hegoaldea	27.852	74.426
2018 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) K197 K2 Brasil hegoaldea	257.243	356.512
2018 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) M2015 Kolonia Coemprander	64.241	145.909
2019 Nafarroako Foru Gobernua (NFG) M209 Niassa	-	57.251
2019 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) A M212 Gehikoop	138.890	205.439
2020-2021-2022-2023 ARRASATEKO UDALA M222 Mozambique	45.000	60.000
2020 Nafarroako Foru Gobernua (NFG) M235 Niassa	82.196	-
2020 Bizkaiko Foru Aldundia (BFA) K226 Brasil Ceará	120.000	-
2020 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) K224 Brasil Ceará	443.255	-
2020 Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID) M239 Etiopia	298.287	-
2020 Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID) M229 Kolonia nekazaritza	298.803	-
Erakunde publikoak guztira	2.069.507	1.256.216
ERAKUNDE PRIVATUAK		
2017 La Caixa W4P M180 Cabo Delgado	-	101.347
2018 MUNDUZABAL M202 Namuno	-	31.000
2018 HARREMAN M204 Mozambique	14.271	19.024
2019 MUNDUZABAL M218 Namuno	5.000	5.000
2019 HARREMAN M221 Mozambique	25.227	25.227
2019 ZABALA M228 Etiopia	-	3.000
2020 HARREMAN M244 Niassa	25.068	-
Erakunde pribatuak guztira	69.566	184.598
Proiektuetarako jasotako dirulaguntzak guztira	2.139.073	1.440.814

Arrasate 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administrazioilea

20

13. OHARRA. EPE LABURREKO ZORRAK

Hauxe da egoera-balantze laburtuko partida honen osaera, eurotan, 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n:

KONTZEPTUA	20-12-31	19-12-31
Kreditu-erakundeekiko zorrak (Visa)	7.015	5.062
Beste finantza-pasibo batzuk	189	207
Guztira	7.204	5.269

14. OHARRA. HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINDU BEHARREKO BESTELAKO KONTUAK

Hona hemen egoera-balantze laburtuko kapitulu honek 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n duen osaera, eurotan:

KONTZEPTUA	20-12-31	19-12-31
Hornitzaileak	10.594	12.599
Hainbat hartzekodun	1.067	206.309
Ordaintzeko dauden ordainsariak	39.649	35.796
Administrazio publikoekiko bestelako zorrak	38.773	33.387
Guztira	90.083	288.091

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, administrazio publikoekiko saldo hartzekodunak kontzeptu hauei dagozkie, eurotan:

KONTZEPTUA	2020	2019
Ogasun publikoa, BEZagatik hartzekodun	1.855	996
Ogasun publikoa, PFEZgatik hartzekodun	20.643	13.189
Gizarte Segurantzaren erakundeak	16.275	19.202
Guztira	38.773	33.387

15. OHARRA. SARRERAK ETA GASTUAK

a) Bazkide eta afiliatuen kuotak

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan, haxe da elkarte eta afiliatuen kuoten xehetasuna, eurotan:

KONTZEPTUA	2020	2019
Partikularren ekarpenak	105.316	115.055
Guztira	105.316	115.055


b) Sustapenetatik eta babesle eta kolaboratzaileengandik etorritako sarrerak

Hona hemen sustapenetatik eta babesle eta kolaboratzaileengandik etorritako sarreren xehetasuna 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan, eurotan:

KONTZEPTUA	2020	2019
Kooperatiben ekarpenak	665.312	799.282
Guztira	665.312	799.282

Hona hemen 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n ekarpenak egin dituzten kooperatiben xehetasuna, eurotan:

KONTZEPTUA	2020	2019
Fagor Taldea	155.706	234.756
Mondragon Fundazioa	165.000	148.000
Orkli S. Coop.	67.848	83.249
Danobat Taldea	-	54.476
Maier S. Coop.	15.000	40.000
Ulma Taldea	67.489	71.446
Orona Fundazioa	35.000	37.636
Irizar S. Coop.	30.000	30.000
Mondragón Inversiones	37.946	-
Beste kooperatiba batzuk	91.323	99.719
Guztira	665.312	799.282



MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2020ko abenduaren 31koa

c) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n haxe da dirulaguntzen, dohaintzen eta legatuen xehetasuna, eurotan:

KONTZEPTUA	2020	2019
ERAKUNDE PUBLIKOAK		
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA)	247.487	127.887
Gipuzkoako Foru Aldundia	46.574	42.581
Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID)	43.103	87.549
Nafarroako Gobernua	77.620	107.624
Arrasateko Udala	15.000	15.000
Aramaioko Udala	300	300
Bizkaiko Foru Aldundia	19.836	68.817
Erakunde publikoak guztira	449.920	449.758
ERAKUNDE PRIBATUAK		
La Caixa Fundazioa	101.347	197.421
Munduzabal elkarte	53.000	47.149
Harreman	12.423	32.481
Ekintzaz Lagundu	52.229	58.822
Cearáko nekazaritza-lankidetzako elkarte	-	227.073
Hirugarren munduko Hiruatx elkarte	8.500	10.000
Eroski S. Coop.	17.000	17.000
RSE Zabala	3.000	-
Beste batzuk	-	91.641
Erakunde pribatuak guztira	247.499	681.587
Guztira	697.419	1.136.345

Fundazioaren Patronatuko kideon ustez, bete egin ditugu jasotako dirulaguntzei, dohaintzei eta legatuei lotutako baldintzak.

d) Laguntza monetarioak

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n haxe da laguntza monetarioen xehetasuna, eurotan:

KONTZEPTUA	2020	2019
Garapen-proiektuak	491.541	762.738
Etorkizuneko ekitaldietan aplikatzekoak	73.851	253.652
Gurutze Gorria – Mozambikeko tifoia	-	4.000
Guztira	565.392	1.020.390


Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

23



e) Laguntza ez-monetarioak

Hona hemen laguntza ez-monetarioen xehetasuna 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, eurotan:

KONTZEPTUA	2020	2019
Prestakuntza	37.501	64.518
Bidaia-gastuak	1.916	60.711
Guztira	39.417	125.229

f) Pertsonal-gastuak

Hona hemen galdu-irabazien kontu laburtuko «Pertsonal-gastuak» partidaren xehetasuna, eurotan:

KONTZEPTUA	2020	2019
Soldata eta ordainsariak	570.575	569.314
Kalte-ordainak	16.501	30.872
Gizarte-segurantza	184.436	184.491
Bestelako gastu sozialak	5.792	5.368
Guztira	777.304	790.045

2020ko ekitaldian, batez beste 20 langile egon dira lanaldi osoko dedikazioan; hona hemen horien sailkapena:

Kategoria	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Zuzendaria	1	-	1
Koordinatzailea / Gestorea	12	3	15
Teknikariak	1	3	4
Guztira	14	6	20

2019ko ekitaldian, batez beste 17 langile egon dira lanaldi osoko dedikazioan; hona hemen horien sailkapena:

Kategoria	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Zuzendaria	1	-	1
Koordinatzailea / Gestorea	11	2	13
Teknikariak	1	2	3
Guztira	13	4	17

g) Jarduerako bestelako gastuak

Hauxe da galdu-irabazien kontu laburtuko «Beste ustiapen-gastu batzuk» partidaren xehetasuna, eurotan:

KONTZEPTUA	2020	2019
Konponketak eta zaintza-lanak	1.853	-
Profesional independenteen zerbitzuak	53.705	73.402
Garraioak	812	25.590
Aseguru-primak	28.153	24.298
Banku-zerbitzuak	117	200
Publizitatea eta propaganda	40.547	44.301
Hornidurak	11.396	13.429
Beste zerbitzu batzuk	24.239	44.101
Zergak	571	519
Guztira	161.393	225.840

**16. OHARRA. ENTITATEAREN JARDUERA. ONDARE-ELEMENTUAK
NORBERAREN HELBURUETARAKO ERABILTZEA.
ADMINISTRAZIO-GASTUAK**

16.1. Erakundearen jardura

a) Egindako jarduerak

➤ Helburu orokorra

Jardueraren izena	Hegoaldeko herrialdeekin lankidetzan aritzea eta esperientziak, baliabideak eta ezagutza metatua partekatzea. Horretarako, kooperatiben elkartasuna aktibatzen du, inplikaturako alderdien garapen autogestionatu eta integrala sustatzeko.
Jardura-mota	Norberaren jardura.
Jardura sektorearen arabera identifikatzea	Prestakuntza, kooperatibentzako laguntza, jardura berriak sortzeko laguntza, ureztatze-sistemak, merkaturatzeko laguntza eta nekazaritza sustatzea.
Jardura egin den lekua	Mozambique, Etiopia, Brasil, Kolonbia eta Ekuador.

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehenakaria

Idazkaria

Administratzailea

➤ Deskribapen zehatza

COVID-19ak izugarri baldintzatu du 2020an gure programetan gauzatutako jarduera. Pandemiak herrialde bakoitzean sortu dituen baldintzetara moldatu behar izan gara, geure helburuari eusteko: ahalik eta pertsona gehienei laguntzea, bizitza hobe bat bilatzen eta, horrela, gizarte bidezko eta jasangarriago baterantz jotzen. Halere, programa bakoitzean gertatutakoaren alderdirik nabarmengarrienen laburpenean ikusiko dugunez, pandemia arazo bat gehiago da pertsona askorentzat, indarkeria, eskasia eta injustizien zerrenda luzeari batu zaien arazo bat.

1. MOZAMBIKE

Parte-hartzaileen ekoizpen- eta merkataritza-jarduera handitzea da helburu estrategikoa. Bide horretan, Cabo Delgadoko gatazkaren bilakaera kaskarrak kalte handia egin dio 2020an programan egindako lanari. Gero eta argiago dago: Isisek antolatzen ditu matxinatuak. Ondorioz, Cabo Delgadoren ipar-ekialdean «inoren lurralde» bat sortu da; 600.000 desplazatu baino gehiago daude, gehienak Cabo Delgadon bertan babes hartuak, baina badaude Niassan eta Nampulan harrera egin zaienak ere.

Egoera hori dela eta, aldatu egin behar izan dugu hasierako asmoa, eta Cabo Delgado probintzian jarrera kontserbadorea hartu dugu, orain arte lortutakoa sendotzeko helburuarekin. Niassako probintzian, berriz, programa hedatzea da asmoa eta, horretarako, beste barruti batzuk irekitzea. Esan beharra dago une honetan zailtasun ezin handiagoak ditugula gure «nekazariz nekazari» sistema ezartzeko, agintari polizialek galarazi egiten dutelako irakasleak probintzia batetik bestera joatea.

Erakunde finantzatzaileekin malgutasun handiagoa negoziatu ahal izan dugu eremu horretan, Cabo Delgadorako aurreikusitako jarduerak Niassako probintzian ezarri ahal izateko.

Horrenbestez, nabarmentzekoak dira:

1) Cabo Delgadon azpibulegoak itxi izana; irekita geratu dira Balamakoa, Montepuezekoa eta Namunokoa. Horiek, beraz, Niassako Marrupa, Majune eta Mitande barrutietako bulegoei batu zaizkie. Ondorioz, berriro 6 barrutitara iritsi da Mozambikeren iparraldeko korridorean dugun presentzia.

2) Taldea. 3 kooperantek eta tokiko 26 lagunek (zaintzaileak, produkzio-arduradunak, administrazio-arduradunak eta biltegi-arduradunak) osatu dute. Gatazkak eta pandemiak gogor jo dituzte; horregatik, Mozambikeko Gobernuak mugak itxi behar izan ditu hainbat hiletan, eta kooperanteak Cabo Delgadotik irtetea gomendatu du Espainiako enbaxadak. Halaxe, Cabo Delgadon zeuden 2 kooperanteak joan egin dira bertatik, eta ez dira itzuli (arrazoi ezberdinak tarteko). Cabo Delgadoko bertako lantaldea, berriz, nabarmen murriztu da, azpibulegoak ixtearen eraginez.

3) Laboreak. Niassan, sesamoa eta baratzeak lantzen jarraitu dugu, eta sojan, babarrun manteigan eta kakahueteen ere egin dira saiakeraren batzuk. Dena den, emaitzak murriztu egin dira nabarmen; izan ere, lehen esan dugunez, irakasleek ezin izan dute «nekazariz nekazari» prestakuntza gauzatu eta Cabo Delgadoko egoera kaskarra da.

4) Merkaturatze-sarea. Tokiko merkataritza-sareak hornitzea izan da aurtengo lan nagusia, eta, horrela, herrixketan sargaien erabilgarritasuna erraztea, bertako nekazariak lanean jarraitzeko tresnak eta haziak izan zezaten.

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

2. ETIOPIA

Etiopian gatazkak izan dira 2020an nagusi. Urtearen lehen zatian, Oromia eskualdean istiluak egon dira, eta manifestazio ugari. Horrek poliziaren kontrol zorrotza eta komunikazioetako mozketak eragin ditu, eta, ondorioz, tokiko bazkidearekiko harremanak zaildu. Bigarren seihilekoan, Tigray inguruan sortu da gatazka. Tokiko gobernuak eta zentralak borroka armatuan hainbat aste eman ondoren, badirudi gobernu zentralak kontrolatu egin duela kontua. Dena dela, ez dakigu benetako egoera zein den.

Horri pandemia eta mugen itxiera gehitu zaizkionez, gure kooperante Jorge Lima herrialdetik kanpo egon da apiriletik urrira. Tarte horretan, finantzatzailei proposamenak aurkeztu dizkiegu, eta EACIDek proiektu bat onartzea lortu dugu. Helburua izango da SOS Sahel Etiopia gure bazkidearekin eskualde-ikuspenez errenta sortzeko proiektu bat ezartzea, Arsi inguruan; osagai hauek izango ditu: ureztapena eta nekazaritza-ekoizpena, abeltzaintza eta basoberritzea.

3. BRASIL

Helburu hau du programak: finkatutako eta kanpatutako familien garapen sozioekonomikoa bultzatzea, nekazaritza-erreformako kooperatiben kudeaketa hobetuz eta pertsonal teknikoa trebatuz.

Horretarako, pandemiaren testuingurura egokitu behar izan dugu 2020ko jardura. COVID-19ak eragindako eta hildako gehien dituen munduko bigarren herrialdea da Brasil, eta Latinoamerikako lehena. Bolsonaro presidenteak ez du serio hartu pandemia: neurriak ipini nahi zituzten 3 osasun-ministro kargugabetu ditu, eta, beraz, arduragabekeriak jokatu du. Egoera horretan, oinarriak babestea erabaki du, hasieratik, LGMk (Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimenduak): kooperatibak bisitatzea eragotzi du, telelana sustatu du eta elikagai osasungarriak ekoiztu ditu herritarrentzat. Horren guztiaren eraginez, izugarri zaila izan da Fundazioaren eta bere 5 kooperanteen jardura. Kooperanteek Brasilen eman dute urtearen lehen zatia; baina, São Paulokoa ez beste guztiak, Arrasaten egon dira urtearen bigarren erdian.

Horrela, bada, honako hauek izan dira urte berezi honetako zereginak:

1) Kooperatibei laguntza ematea.

Lehen hiruhilekoan, aurrez aurrekoa izan da laguntza; baina, apiriletik aurrera, birtual bihurtu da gutxika-gutxika. Zailtasun handiak ekarri ditu horrek, eta, konektatzea ezinezkoa izan den kasu batzuetan, jardura eten behar izatea.

Paraná, Santa Catarina eta Rio Grande do Sul kooperatibek —ibilbide handikoak gehienak— eutsi egin diote ekoizpenari. Alabaina, erosketa publikoen mendekotasun handia dutenez, murrizketa handiak izan dituzte salmentetan.

Cearán, berriz, jarraitu egin dugu erreferentziatzeko kooperatiba eta nekazaritzako industria bana eratzen 5 ekoizpen-kate hauetan: ezti, esnea, mandioka, anakardoa eta behi- eta ahuntz-haziendak. Egoerak, baina, gogor jo ditu eratzeko urratsak, eta obrak gelditu egin behar izan dira urteko hainbat hilabetetan.

Hurrengo puntuan aipatu dugun laguntza-ereduaren bidez, Paranán 7 kooperatibari lagundu diegu, Rio Grande do Sulen beste 7ri eta Santa Catarinan 3ri.

2) Nekazaritza Erreformako kooperatibei laguntzeko eredua finkatzea. Hedatzeko lanean ere ibili gara, Nekazaritza Erreformako kooperatibentzat bereziki sortutako kudeaketa-eredu hori beste leku batzuetan ere aplika dadin. Ezarri aurretik, diagnostikoa egiten da, kasu bakoitzaren jarduketa-lehentasunak ezartzeko. Behar horien arabera, jarduketa-plana adosten da, eta jarraipena egiteko eta kontrolatzeko mekanismoak finkatzen dira.

3) Prestakuntza-dinamika bat bultzatzea, pertsonei prestakuntza emateko, Nekazaritza Erreformako kooperatiben kudeaketan lidergoa har dezaten.

Bertan behera geratu dira aurrez aurreko prestakuntza-saio guztiak, eta lan izugarria egin behar izan dugu, erlojuaz kontrara, onlineko prestakuntza-ekintzak diseinatzeko. 20 ikastaro antolatu ditugu eta 101 partaide izan dituzte, horietatik 48 emakumeak.

4) Merkaturatzeari bultzada ematea.

Oso urte korapilatsua izan da 6 «Armacen do Campo» dendentzat —kooperatiben produktuak saltzeko ez ezik, nekazaritzako produkzio ekologikoarekin konprometitutako hiri handietako biztanleen elkargune izateko ere sortu ziren—. Eten egin behar izan dira prestatuta zeuden kultura-jarduera guztiak, eta pertsonei elikagai osasungarriak eskaintzera mugatu da jarduera. Ildo horretatik, bezeroak dendetara iristeko zailtasunen (eta, zenbaitetan, ezintasunen) aurrean, online eskatzeko eta erosketak etxera eramateko eredua sustatu da. Gainera, dende «eltze solidarioa» eskaini diete baliabiderik gabeko pertsonei.

Jardunbide egokietan eta lehen irekitzeetan antzemandako hutsegiteetan oinarrituz, sistematizazio-lan bat egin dugu, «Armacen do Campo» denden eredua zehazteko.

São Pauloko merkaturatzeko eskritorio nazionalari lagundu egin diogu, merkataritza-lanak gauzatzeko zailtasunek baldintzatuta bada ere, eta salmentei eustea lortu dugu.

5) Elkar-lankidetzako dinamikak sustatzea, Nekazaritzako Kooperatiben Zentralei laguntza emanez, presentzia egonkorra dugun Hegoaldeko estatuetan: Paraná, Santa Catarina eta Rio Grande do Sul. Jarduera hori ere izugarri mugatu du aurrez aurreko bilerak egiteko ezintasunak eta pertsonek kooperatiben zentralak utzi eta nor bere asentamendura itzuli beharrak.

4. KOLONBIA

Kolonbiako programak, herrialdearen hegoaldeko Nariño probintzian gauzatzen denak, bi lan-ildo ditu. Pandemiak ekarritako konfinamenduak eta egoera gorabehera, bi lan-ildook bilakaera ona izan dute urte zail honetan.

Batetik, Pasto hiriko Coemprander birziklatze-kooperatibari lagundu diogu, bertan diharduten 567 langile birziklatzaileen kudeaketa hobetzeko asmoarekin —emakumeak dira gehienak—. Arlo hauek ari gara jorratzen: alderdi instituzionala sendotzea, pertsonak ahaldundu eta trebatzea eta kooperatiba kudeatzen laguntzea produkzioaren arloan eta arlo sozialean. Coemprander erreferentzia bihurtzen ari da Kolonbiaren Hegoaldeko Birziklatzaileen Elkartearen (ARSOCen) barruan, bai eta Birziklatzaileen Elkarte Nazionalaren (ANRren) barruan ere. Harreman horien ondorioz, ikastaro bat antolatu genuen Popayán (Cauca) herrian, eta etorkizunean beste probintzia batzuetan egin daitezkeen prestakuntzen aurrekaria izan daiteke, pandemiak uzten badigu.

Bestetik, proiektu bat jarri dugu abian Agromindalae erakundearekin, Pasto komunitateko emakume indigenen produktu tradizionalak sustatu eta haientzako merkatu berriak bilatzeko, zero kilometroko Naturalia jatetxe-sarearekin elkarlanean. Proiektu honetarako, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantzaketa lortu dugu.

5. EKUADOR

Pandemiaren eta konfinamenduen eraginez, identifikazio-lanak bertan behera geratu dira ia erabat; izan ere, bisitak eta aurrez aurreko bilerak egitea ezinezkoa izan denez, topaketa birtualetara mugatu behar izan gara. 2021ean ekingo zaie berriro.

Berreskuratu egin dugu Wiñak elkartearekin izan genuen harremana —duela 10 urte baino gehiago jardun genuen elkarte horrekin elkarlanean—. Gaur egun, erreferentzia da indigenentzat, produkzioaren eta merkaturatzearen arloetan. Kitchwa komunitate indigenen gaitasun teknikoak eta erresilientzia sendotzea da helburua. Horretarako, trebatzeko eta laguntza teknikoak emateko estrategia integral bat erabiliko da, deforestatu gabe ekoizteko, ekoizpen-metodo garbiak eta jasangarriak erabiliz, arbasoen sistemaren arabera; laboreen aniztasuna eta biodibertsitatea, kultura nahiz identitatea zaintzea sustatzen ditu sistema horrek.

6. MALAWI

Programaren hasiera 2021aren bigarren erdira edo 2022ra atzeratzea erabaki dugu, pandemiak ekarri duen egoera konplikatu tarteko.

7. GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Estrategian finkatutakoaren haritik, 2020an GEHIKOOP (Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Interkooperatiboa) proiektu pilotuan egin dugu lan. Bi lan-ildo ditu proiektuak.

Lehenengoan, kooperatibei gizarte-eraldaketaren ikuspegi orokorra ematea da asmoa. Horretarako, hemengo 4 kooperatibak —FAGOR EDERLAN, COPRECI, MAIER eta ARIZMENDI IKASTOLA— Brasilgo 4 kooperatibarekin jardungo dute elkarlanean, partekatutako prestakuntzaren eta jardueraren bidez arazo komunei irtenbidea emateko. 2020an, hilean bilera bat egin da kooperatiba bakoitzarekin, gehi elkar-lankidetzako beste bat, hiru hilean behin; halere, Brasilekiko konexioa txarra izan denez, zaila izan da kooperatiben arteko harremana. Gainera, COVID-19a dela eta, bertan behera geratu da euskal kooperatibistak Brasilera egitekoak ziren bidaia.

Bigarren lan-ilduan, Mondragon Unibertsitatearekin eta Arizmendi Ikastolarekin ari gara elkarlanean, eredu sozioekonomiko nagusiarekiko ikuspegi kritikoa txertatzeko beraien prestakuntza-profilean. Horren harira, erronka bat aurkeztu diegu Enpresagintzako (150) eta Goi Eskola Politeknikoko (650) lehen mailako ikasle guztiei. Arizmendi Ikastolan, oster, DBHko 1. eta 2. mailetak eta LHko 5. eta 6. mailetak ikasleentzako material pedagogikoa landu da.

8. ELKAR-LANKIDETZARAKO PROPOSAMEN BERRIAK

Mundukideren «I+Gko inbertsioztat» jotzen den ildo estrategiko horretan identifikatzen dira elkar-lankidetzarako proposamen berriak. Xedea argia da: jarduteko eskema eta modu berriak aurkitzea eta etorkizunean guretzat lagungarriak izan daitezkeen beste errealitate batzuetara hurbiltzea.

2020an, ekimen hauetan egin dugu lan:

1) SAREKOOP: MUNDUKIDE+MU+ALECOOP+KOOPERATIBAK

Kooperatiben sarea da, aukera ematen duena esperientziak, prestakuntza eta kudeaketarako tresnak partekatze, arlo sozialean, ekonomikoan eta komunitarioan (gizarte-eraldaketarenean). Sare horren bidez, BOLUNTARIOTZA eredu bat sustatu nahi da Mondragoneko kooperatibetan, MUko ikasleak barne hartuta. Helburua da pertsonen eta erakundearen printzipio kooperatiboak biziberritzea, gizarte-ekonomiako beste errealitate batzuekin esperientziak eta ikaskuntzak partekatuz, epe luzeko (adibidez, 2 urteko) konpromisoaren bidez eta bertatik bertarako egonaldi laburrak eta onlineko jarraipena eginez.

2) TOSEPAN (MEXIKO): GARABIDE+MUNDUKIDE+LANKI (MU)

Tosepan kooperatiba-taldean ardaztutako plan sozio-ekonomiko-identitarioa (SEI plana) da, Euskadiko 3 entitatearen —Garabide, Lanki eta Mundukide— elkarlanaren emaitza. Garapenaren eta gizarte-justiziaren alorreko helburu berberak partekatzen dituzte, identitatea eta tokiko hizkuntza garatzea ere aintzat hartuz, eta osagarriak dira jardueran eta erantzukizunean: sozioekonomikoa Mundukiden, linguistikoa Garabiden eta sistematizazioa eta pedagogia bideratua Lankin. 2020an, Carlos Oses LABORAL Kutxako erretiratuak 3 hilabete egin ditu Mexikon.

b) Jardueran erabilitako giza baliabideak

2020ko ekitaldia

Mota	Kopurua		Orduak urtean	
	Aurreikusia	Egindakoa	Aurreikusia	Egindakoa
Soldatuko langileak	20	20	30.781	29.265
Zerbitzu-kontratadun langileak	0	0	-	-
Boluntarioak	20	22	5.000	2.200
Guztira	40	41	35.781	31.465

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

30



MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2020ko abenduaren 31koa

2019ko ekitaldia

Mota	Kopurua		Orduak urtean	
	Aurreikusia	Egindakoa	Aurreikusia	Egindakoa
Soldatuko langileak	17	17	29.274	32.600
Zerbitzu-kontratadun langileak	2	0	2.000	0
Boluntarioak	20	23	2.400	2.760
Guztira	39	42	33.674	35.360

c) Jardueraren onuradunak edo erabiltzaileak

Mota	2020		2019	
	Kopurua		Kopurua	
	Aurreikusia	Egindakoa	Aurreikusia	Egindakoa
Pertsona fisikoak	100.000	69.143	85.000	87.391
Pertsona juridikoak	150	199	100	93

d) Jardueran erabilitako baliabide ekonomikoak

Gastuak / Inbertsioak	2020		2019	
	Zenbatekoa		Zenbatekoa	
	Aurreikusia	Egindakoa	Aurreikusia	Egindakoa
Laguntzen eta bestelakoen ondoriozko gastuak	1.246.366		1.352.297	
a) Laguntza monetarioak	-	565.392	-	1.020.390
b) Laguntza ez-monetarioak	-	39.417	-	125.229
c) Kolaborazio-gastuak eta gobernu-organismoarenak	-	-	-	-
Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen arteko aldea	-	-	-	-
Pertsonal-gastuak	928.800	777.304	889.371	790.045
Jarduerako bestelako gastuak	-	161.393	-	225.840
Ibilgetuaren amortizazioa	332	332	332	332
Ibilgetua besterentzeagatik narriadura eta emaitzak	-	-	-	-
Finantza-gastuak	1.000	3.140	3.000	3.824
Finantza-tresnetako arrazoizko balioaren aldakuntzak	-	-	-	-
Kanbio-aldeak	-	72	-	8.433
Finantza-tresnak narriatzearen eta besterentzearen ondoriozko galerak	-	-	-	-
Mozkinen gaineko zergak	-	-	-	-
Gastuen guztizko partziala	2.176.498	1.547.050	2.245.000	2.174.093
Inbertsioak (ondare historikoko ondasunenak salbu)	-	-	-	-
Ondare historikoko ondasunak eskuratzea	-	-	-	-
Komertziala ez den zorra kitatzea	-	-	-	-
Baliabideen guztizko partziala	-	-	-	-
GUZTIRA	2.176.498	1.547.050	2.245.000	2.174.093

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administrazioa

31

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2020ko abenduaren 31koa

e) Jardueran lortutako baliabide ekonomikoak
2020ko ekitaldia

Kontzeptua	Zenbatekoa		
	Aurreikusia	Egindakoa	Diferentzia
Entitatearen jardueraren ondoriozko sarrerak	1.955.015	1.468.047	(486.968)
a) Bazkide eta afiliatuen kuotak	100.000	105.316	5.316
b) Sustapenetatik eta babesle eta kolaboratzaileengandik etorritako sarrerak	640.000	665.312	25.312
c) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.215.015	697.419	(517.596)
Bestelako sarrerak	50.000	79.003	29.003
Finantza-sarrerak	-	-	-
Kanbio-aldeak	-	-	-
Guztira	2.005.015	1.547.050	(457.965)

2019ko ekitaldia

Kontzeptua	Zenbatekoa		
	Aurreikusia	Egindakoa	Diferentzia
Entitatearen jardueraren ondoriozko sarrerak	2.131.344	2.050.682	(80.662)
a) Bazkide eta afiliatuen kuotak	95.000	115.055	20.055
b) Sustapenetatik eta babesle eta kolaboratzaileengandik etorritako sarrerak	760.000	799.282	39.282
c) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.276.344	1.136.345	(139.999)
Bestelako sarrerak	25.000	78.724	53.724
Finantza-sarrerak	-	-	-
Kanbio-aldeak	-	44.687	44.687
Guztira	2.156.344	2.174.093	17.749

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehen Idazkaria

Idazkaria

Administrazioaile

f) Jardueraren helburuak eta adierazleak


MOZAMBIKE

2020ko ekitaldia

Jarduera	Baliabidea	Emitza	Emakumeak
Ureztatzea	Labore nagusiak: tokiko tipula, buru-aza, uraza, piperra, hostodun barazkiak eta tomatea	429 hektarea ureztatuta	1.460 emakumek dihardute barazkigintzan
Laguntza teknikoa	Hitzarmenak tokiko 21 elkarterekin	234 irakasle	29 emakume irakasle
Nekazaritza-produkzioa	Labore hauek bultzatu dira: sesamoa, babarruna, soja, kakahuete fina eta barazkiak	15.000 hektarea baino gehiago landatzen dira eta haien produkzioa 3,7 milioi eurotik gorakoa da	20.000 parte-hartzaile baino gehiago; 5.000tik gora emakumeak
Sargaiak merkaturatzea	66 hitzarmen tokiko sargai-banatzailleekin	95.000 euro eman dira	
Onuradunak GUZTIRA		40.500	(% 30 emakumeak)

2019ko ekitaldia

JARDUERA	BALIABIDEA	EMAITZA	EMAKUMEAK
Ureztatzea	Labore nagusiak: tokiko tipula, buru-aza, uraza, piperra, hostodun barazkiak eta tomatea	530 hektarea ureztatuta	1.083 emakumek dihardute barazkigintzan
Laguntza teknikoa	Hitzarmenak tokiko 16 elkarterekin	199 irakasle	31 emakume irakasle
Nekazaritza-produkzioa	Honako labore hauek bultzatu dira: sesamoa, babarruna, kakahuete fina eta barazkiak	15.000 hektarea baino gehiago landatzen dira eta haien produkzioa 6 milioi eurotik gorakoa da	20.000 parte-hartzaile baino gehiago; 6.000tik gora emakumeak
Sargaiak merkaturatzea	44 hitzarmen tokiko sargai-banatzailleekin	134.000 euro eman dira	
Onuradun zuzenak GUZTIRA		14.500 lagun	% 40 emakumeak
Zeharkako onuradunak GUZTIRA		57.998 lagun	% 51 emakumeak



MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2020ko abenduaren 31koa

BRASIL
2020ko ekitaldia

GJHa	Jarduera	Baliabidea	Emaiza	Emakumeak
8	Kooperatibak kudeatzeko laguntza	6 kooperante Tokiko 3 talde	5.326 bazkide dituzten 23 kooperatibari lagundu zaie 5 estatutan	1 kooperante 1.476 emakumezko bazkide (% 26)
4	Prestakuntza	3 prestakuntza Cearán, Paraná eta Rio Grande do Sul	81 pertsona trebatu dira	15 emakume
5	Generoa	Emakumeen 2 ekintzailatza-jarduerari laguntzea Hegoaldean	2 emakume (koordinatzailea eta teknikaria), hegoaldeko hiru estatuetako ekoizpenaren sektorerako. Emakume-taldean ordezkariak: 5 emakume teknikari, emakume-taldee beren jardueretan laguntzen dieten laguntza-taldeetan 51 emakume, emakumeen ekintzailatza-jardueretan	
17	Elkar-lankidetzak	Kooperatiben arteko elkar- lankidetzak	-Produktzio-sektorea merkaturatzeko Eskritorio Nazionala -Produktzio-kooperatibez osatutako bigarren mailako 4 estatu-kooperatiba eta MSTko beste 16 kooperazio- erakunde - Kafe-katearen koordinazio- talde nazionala 80 laguni laguntza zuzena eman zaie	31 emakume trebatuta (% 33)
12	Ekoizpen ekologikoa merkaturatzea	8 denda irekita (6 fisikoak eta 2 onlinekoak) 12 denda irekitzeko prozesuan	43 lagun (% 81 30 urtez beherakoak)	21 emakume
	Onuradunak GUZTIRA		26.884 lagun	(% 50,3 emakumeak)

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria


Administrazioa

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2020ko abenduaren 31koa

2019ko ekitaldia

JARDUERA	BALIABIDEA	EMAITZA	EMAKUMEAK
Kooperatibak kudeatzeko laguntza	7 kooperante Tokiko 3 talde	5.679 bazkide dituzten 22 kooperatibari lagundu zaie 5 estatutan	1.476 emakumezko bazkide (% 26)
Prestakuntza	Teknikarientzako kudeaketa- ikastaroa ipar-ekialdeko kooperatibetan	50 lagun trebatu dira 7 prestakuntza-ekintzatan	14 emakume
Generoa	Genero-koordinatzaile bat hegoaldeko produkzio- sektorerako 5 emakume, kooperatibei laguntzeko taldeetan	49 emakumek lagundutako emakumeen 2 ekintzailertza- jarduera	
Elkar-lankidetzak	Kooperatiben arteko elkar- lankidetzak	-Produkzio-sektorea merkaturatzeko Eskritorio Nazionala -Produkzio-kooperatibez osatutako bigarren mailako 4 estatu-kooperatiba eta MSTko beste 16 kooperazio- erakunde - Kafe-katearen koordinazio- talde nazionala 96 laguni laguntza zuzena eman zaie	31 emakume trebatuta (% 33)
Ekoizpen ekologikoa merkaturatzea	8 denda irekita 6 denda irekitzeko prozesuan	44 lagun	22 emakume
Onuradun zuzenak GUZTIRA		5.918 lagun	(% 30 emakumeak)
Zeharkako onuradunak GUZTIRA		28.738 lagun	(% 51 emakumeak)



KOLONBIA
2020ko ekitaldia

GJHa	Jarduera	Baliabidea	Emaiza	Emakumeak
8	Kooperatibak kudeatzeko laguntza	25 lagunentzako laguntza zuzena	Birziklatzaileen 5 kooperatibari eta elkarteri eta 10 nekazaritza-elkarteri lagundu zaie	% 92 emakumeak
4	Prestakuntza	Prestakuntza-ekintzak	250 lagun nekazaritza-erakundeetakoak eta 45 lagun birziklatzaileen antolatzaileenak	% 81 emakumeak
17	Elkar-lankidetzak	ARP – Asociación de Recicladores de Pasto	14 lider ahaldundu	% 79 emakumeak
	Onuradunak GUZTIRA	905 lagun	166 gizon	739 emakume

2019ko ekitaldia

JARDUERA	BALIABIDEA	EMAITZA	EMAKUMEAK
Kooperatibak kudeatzeko laguntza	13 lagunentzako laguntza zuzena	211 bazkide dituzten 4 kooperatibari lagundu zaie	% 77 emakumeak
Prestakuntza	Prestakuntza-ekintzak	715 pertsona trebatu dira	% 74 emakumeak
Elkar-lankidetzak	Bigarren mailako kooperatiba bat sortu dute 4 erakunderen artean		
Onuradunak GUZTIRA	655 lagun	119 gizon	456 emakume

GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA
2020ko ekitaldia

GJHa	Jarduera	Baliabidea	Emaiza	Emakumeak
4	Prestakuntza	Prestakuntza-ekintzak: proiektuak, erronkak...	MGEPEko 650 ikasle MU Enpresagintzako 150 ikasle 29 irakasle (Arizmendi eta MU)	% 36 emakumeak
17	Elkar-lankidetzak	Elkarguneak gaitu dira Euskadiko 4 kooperatibarekin eta Brasileko beste 4rekin	25 kooperatibistak dihardute talde eragileetan	% 52 emakumeak
	Onuradunak GUZTIRA	854 lagun	570 gizon	284 emakume



g) Beste entitate batzuekiko lankidetzak-hitzarmenak

- -Bere profesionalak MUNDUKIDERentzako proiektu solidarioak egitea bultzatzen du ULMAk.
- -GIZABIDEA FUNDAZIOA. 2011tik 2020ra bitartean Mundukide Fundazioaren egoitza izan den lokalaren jabea da, eta prekarioan egon gara bertan.
- -LABORAL KUTXA. LK KONPROMISO funtseko partaide izaten jarraitzen dugu. Horren bidez, kudeaketa-komisioaren zati bat hainbat GKeri ematen die Caja Laboralak, eta horien artean dago Fundazioa.
- -FAGOR EDERLAN, MAIER, COPRECI, ARIZMENDI IKASTOLA eta MONDRAGON UNIBERTSITATEA. Gizarte-eraldaketarako GEHIKOOP hezkuntza-proiektuan hartzen dute parte.
- EROSKI. Brasilgo programan laguntzen du, MSTko nekazarien produktuak merkaturatuz.
- WORK 4 PROGRESS. Programa horretan partaide gara, beste erakunde batzuekin batera —besteak beste, Ekintzaz Lagundu, ASSOR, Agência de Desenvolvimento Econômico Local da Província de Cabo Delgado (ADEL), Technoserve eta Universidade Politecnica—, Mozambikeko emakume eta gazteentzako kalitateko enplegu jasagarria sortzeko helburuarekin.

h) Jarduera-planaren eta egindakoaren arteko desbiderapena

2020ko ekitaldia

Jardueraren azalpenean aipatu dugunez, COVID-19aren ondoriozkoak izan dira ekitaldi honetako desbiderapen nagusiak; hauek nabarmentzen dira:

- 1) ELKAR-LANKIDETZAren arloan, hegoaldeko herrialdeetan kooperanteen bidez laguntzeko ereduari larriki eragin dio COVID-19ak. Aurreikusitako jarduera ugari ezin izan ditugu gauzatu. Gainera, aurreikusita zeuden aurrez aurreko prestakuntza-saiorik gehienak online prestakuntza bihurtu behar izan dira. Eta diagnostiko- eta laguntza-jarduerak ere online egin dira. Horrek zailtasun handiak ekarri ditu, batez ere kontuan hartuta beste kultura batzuetako jendearekin, konektatzeko zailtasun handiko inguruetan eta teknologia berriak erabiltzeko ohiturarik ez duten pertsonekin egin behar izan direla.
- 2) GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAren eremuan, GEHIKOOP proiektuan Euskadiko 20 kooperatibistaren bidaia zegoen aurreikusita, eta bertan behera geratu da. Bestalde, Mondragon Unibertsitatean aurrez aurreko saiok eman dira, nahiz eta online konexioa ere eskaini zaien konfinatuta zeuden ikasleei.

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

- 3) PERTSONEN atalean, mugatu egin behar izan ditugu bidaiak, aurrez aurreko bilerak eta boluntarioen eta praktiketako ikasleen jardura, osasuna lehenesteko. Egoitzan, konfinamendu-aldia bete ondoren, etxeko eta bulegoko lana txandakatu dugu. Afrikako 3 kooperante ABEEEn egon dira maiatzetik abuztura bitartean. Bestalde, Brasilgo, Kolonbiako eta Ekuadorreko kooperanteek konfinamendu luzeak egin behar izan dituzte. Bi pertsona sartu dira egoitzan: Brasilen bata (baja bat betetzeko) eta Mozambiken bestea (herrialde horretako programatik 2 lagun irtetearen ondorioz). Sartu diren lagunen % 50 emakumeak dira, eta, beraz, bete egin da genero-planeko helburua.
- 4) SISTEMEN alorrean, ezarritako sistemek egoki funtzionatu dute konfinamendu-aldian, eta onlineko prestakuntzarako plataforma bat ezartzeko premia dagoela nabarmendu du pandemiak.
- 5) FINANTZAKETAREN atalean, kooperatiben, GKE-en eta pertsonen ekarpenak uste baino handiagoak izan dira, urtea korapilatsua izan arren.

2019ko ekitaldia

Hauek dira ekitaldiko desbiderapen nagusiak:

- 1) ELKAR-LANKIDETZAREN arloan, Malawiko programaren hasiera atzeratu egin da, eta lehentasuna eman zaio Etiopiakoari. Ekuadorreko eta Etiopiako programen hasiera eta Kolonbiako jardura uste baino motelago joan dira.
- 2) GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAREN eremuan, GEHIKOOP proiektuaren hasiera irailera atzeratu da.
- 3) PERTSONEN atalean, plantillan sartutako 5 pertsonak (2 Brasilen, 1 Etipian, 1 Ekuadorren eta 1 egoitzan) gizonak dira; oso urrun geratu da, beraz, plantillaren % 50 emakumeak izateko helburua.
- 4) FINANTZAKETAREN atalean, kooperatiba, GKE, bazkide eta dohaintza-emaileen ekarpenak espero baino handiagoak izan dira. Erakunde publikoetatik, berriz, aurrekontuan jasotakoa baino gutxiago jaso da.

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

16.2 Ondare-elementuak norberaren helburuetarako erabiltzea

1) Errenten eta sarreraren xedearen betetze-maila

Ekitaldia	Emaizta-kontuko sarrerak guztira	(-) Oinarrian sartuta ez dauden sarrerak (mozkin berrinbertituak) (1)	(-) Sarrerak eskuratzeko beharrezko gastuak (zati proportzionala) (1)	= KALKULU-OINARRIA	Bideratu beharreko gutxieneko errenta	%	Fundazioaren xedeetara bideratutako baliabideak (gastuak eta inbertsioak) (2)	Helburuak betetzera bideratutako baliabideen aplikazioa				
								2017	2018	2019	2020	Aplikatzeko dagoen zenbatekoa
2017	1.884.204	-	-	1.884.204	1.318.943	70%	1.855.685	1.855.685	-	-	-	-
2018	2.011.700	-	-	2.011.700	1.408.190	70%	1.979.042		1.979.042	-	-	-
2019	2.174.093	-	-	2.174.093	1.521.865	70%	2.145.288			2.145.288	-	-
2020	1.547.050	-	-	1.547.050	1.082.935	70%	1.506.404				1.506.404	-

Fundazioak bete egiten du 2019ko uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duenaren, 30. artikuluan xedatutakoa.

Lege horren arabera, Fundazioak egiten dituen jardueretatik edo ematen dituen zerbitzuetatik eskuratutako diru-sarreraren % 70 erabili beharko du, gutxienez, fundazioaren xedeetarako. Fundazioaren xedeetarako erabili beharko den zenbatekoa kalkulatzeko, Fundazioaren emaitza-kontuko sarrera guztiak hartuko dira oinarritzat, baldin eta ondare-zuzkidura gisa egindako ekarpenak ez badira. Oinarri horretatik, diru-sarrerak eskuratzeko beharrezkoak izan diren gastuak kendu hala izango dira soilik, fundazioaren xedeetarako gastuak salbu utzita. Emaizta-sarrerok lortu diren ekitaldiaren eta ekitaldi hori itxi ondorengo 3 urteen arteko epean bete beharko da betebeharrak hori.

Gastuak eta inbertsioak fundazioaren xedeetara bideratu direla ulertuko da, baldin eta xede horiek lortzen benetan lagundu badute. Ez dira halakotzat joko amortizazioetarako zuzkidurak eta narriadurak eragindako galerak. Era berean, administrazio-gastuak eta diru-sarrerak lortzeko beharrezkoak direnak ez dira hartzen fundazioaren xedeetara bideratutako gastutzat.

Obar honetan aipatutako kalkulu-oinarria zehazteko ez dira inolaz ere sarreratzat hartzen Fundazioa eratzeke unean nahiz gerora zuzkidura moduan egindako ekarpenak.

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2020ko abenduaren 31koa

2.- EKITALDIAN APLIKATUTAKO BALIABIDEAK

Kontzeptua	Aplikatutako zenbatekoa	
	2020ko ekitaldia	2019ko ekitaldia
Emitza-kontuko gastuak guztira (16.d oharra)	1.547.050	2.174.093
Amortizazio-gastuak	(332)	(332)
Administrazio-gastuak	(40.314)	(28.473)
Bestelako gastuak	-	-
a) Helburuak betetzeko gastuak	1.506.404	2.145.288
Ibilgetu materialean egindako inbertsioak	-	-
b) Helburuak betetzeko inbertsioak	-	-
GUZTIRA (a + b)	1.506.404	2.145.288

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2020ko abenduaren 31koa

16.3. Administrazio-gastuak

ADMINISTRATIO-GASTUEN XEHETASUNAK				2020	2019
KONTU-ZK.	EMAITZA-KONTUAREN KONTU-SAILA	GASTUEN XEHETASUNAK	ONDAREA ADMINISTRATZEKO ZEREGINERA EGOZTEKO IRIZPIDEA	ZENBA-TEKOA	ZENBA-TEKOA
640-641-642	Pertsonal-gastuak	PERTSONAL-KOSTUA	% 100	30.049	17.477
623	Profesional independenteen zerbitzuak	Laguntza-zerbitzuak (auditorietza- eta aholkularitza-gastuak)	% 100	9.821	9.265
625	Aseguru-primak	Bizitza-, gaixotasun- eta istripu-aseguruak	% 100	185	181
626	Banku-zerbitzuak eta antzekoak	Komisioak	% 100	159	-
629	Beste zerbitzu batzuk	Administrazioarako beharrezko dietak, kilometroak eta bisitak	% 100	100	1.550
ADMINISTRATIO-GASTUAK GUZTIRA				40.314	28.473

Ekitaldia	ADMINISTRATIO-GASTUAK				
	Sarrera garbien % 20 (2007ko ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren, EAEko Fundazioen Babesleitzaren Erregelamendua onartzen duenaren, 22. artikulua)	Ondarearen administrazioak zuzenean eragindako gastuak	Patronatuko kideei ordaintzeko moduko gastuak	EKITALDIAN SORTUTAKO ADMINISTRATIO-GASTUAK GUZTIRA	Gaunditzen du (+) / ez du gaunditzen (-) gehieneko muga
2020	309.410	40.314	-	40.314	(269.096)
2019	425.881	28.473	-	28.473	(397.408)

Ekitaldia	ADMINISTRATIO-GASTUAK				
	Funtu propioen % 5 (2019ko uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren, EAEko Fundazioen Babesleitzaren Erregelamendua onartzen duenaren, 31. artikulua)	Ondarearen administrazioak zuzenean eragindako gastuak	Patronatuko kideei ordaintzeko moduko gastuak	EKITALDIAN SORTUTAKO ADMINISTRATIO-GASTUAK GUZTIRA	Gaunditzen du (+) / ez du gaunditzen (-) gehieneko muga
2020	56.886	40.314	-	40.314	(16.572)
2019	56.886	28.473	-	28.473	(28.413)

Fundazioak bete egiten du 2007ko ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesleitzaren Erregelamendua onartzen duenaren, 22. artikulua administrazioko gastuetarako finkatzen duen muga. Horren arabera, administrazioko gastuak ezingo dira Fundazioak lortutako sarrera garbien % 20tik gorakoak izan. Dena delarik ere, salbuespen gisa, Babesleitzak ehuneko hori gaunditzeko baimena eman ahal izango du, Fundazioak arrazoitutako eskabidea egin ostean eta ezartzen dituen muga eta baldintzekin.


Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administrazioilea

41



17. OHARRA. BESTELAKO INFORMAZIOA**a) Patronatuko Batzordeko kideen eta Goi Zuzendaritzako langileen ordainsariak**

Fundazioaren Patronatuko Batzordea 20 kidek osatzen dute: 2020ko eta 2019ko abuztuaren 31n, 15 gizonak izan dira eta 5 emakumeak. Guztiek ere pertsona juridikoak ordezkatzan dituzte, kooperatibak eta GKEak batez ere.

Patronatuko Batzordeko kideek ez dute inolako ordainsaririk jasotzen kargua betetzeagatik.

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, Fundazioak ez du betebeharririk administrazio- eta zuzendaritza- organoetako aurreko edo egungo kideen pentsioei eta bizitza-aseguruei dagokienez. Halaber, ez du inolako obligaziorik hartu bermeen alorrean.

Zuzendaritzako funtsezko langileek 47 eta 46 mila euro kobratu dituzte, hurrenez hurren, soldata eta ordainsari gordinetan, 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n. Zuzendaritzan langile bakarra dago: gizonezkoa.

2020ko eta 2019ko ekitaldietan, Fundazioaren Patronatuko kideek eta Zuzendaritzako funtsezko kideek ez dute Fundazioarekin ohiko trafikoaz edo merkaturako baldintzez gaindiko eragiketarik egin.

b) Ingurumenari buruzko informazioa

Fundazioak ez du bere ibilgetu materialean ingurumen-inpaktua txikitzeko eta ingurumena babestu eta hobetzeko helburua duen aktiborik. Halaber, ekitaldian ez du helburu horri erantzuteko dirulaguntzarik jaso, eta halako gasturik ere ez du egin. Bestalde, Fundazioak ez du hornidurarik egin ingurumenaren alorreko jardueretako arriskuak eta gastuak estaltzeko, uste izan baitu ez dagoela ingurumena babestu eta hobetzeko xedea duen gorabeherarik.

Beraz, Fundazioak adierazi duenez, aurtengo urteko kontuetako kontabilitatean ez dago ingurumenari buruzko aparteko agirian sartzeko partidarik (2001eko urriaren 8an Ekonomia Ministerioak emandako Aginduan jasotzen da jarraibide hori).

c) Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideei buruzko informazioa

Fundazioaren Patronatuak adierazi duenez, urteko kontu laburtu hauei dagokien kontabilitatean ez dago memoria laburtuan txertatu beharreko ingurumenari buruzko partidarik, Kontabilitate Plan Orokorren hirugarren atalak (1514/2007 Errege Dekretuak, azaroaren 16koak) xedatutakoaren arabera eta berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen erregistroari, balioztapenari eta informazioari buruzko 2010eko apirilaren 6ko ebazpenaren arabera.

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

42

d) Hornitzaileei egindako ordainketa-geroratzeei buruzko informazioa. 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legearen, Informatzeko Betebeharrari buruzkoaren, hirugarren xedapen gehigarria

Sozietateak hornitzaileekin zorretan dituen saldoen epeak aztertu ditu, Legeak ezarritakoaren arabera:

- 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n ordaintzeko dauden saldoak, egoera-balantzeko pasibo korrontean sartutako hornitzaile eta hartzekodun komertzialeei dagozkienak, ondasun- edo zerbitzu-hornitzaileekin hartutako zorrenatik.
- Legezko gehieneko epea zenbatzeko, hirugarrenak zerbitzua eman duen data edo Sozietateak salgaiak jaso dituen eguna hartu da aintzat, edo, bestela, Legea indarrean sartu zen eguna (2010eko uztailaren 7a), baldin eta data hori aurretik esandakoa baino geroagokoa bada.
- 2020ko eta 2019ko ekitaldietan, 60 egunekoa izan da atzerapen-epea. Sozietateak ez du elikagai fresko edo galkorrik eskuratu.

Hona hemen 2020ko eta 2019ko ekitaldietan eskatu den informazioaren xehakapena:

	2020	2019
	Egunak	Egunak
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	21	13

e) Auditoretzako zerbitzu-sariak

Gure kontu-auditoreak, LKS AUDITORES SLPk, 2020ko eta 2019ko ekitaldietan urteko kontu laburtuen auditoretza egiteagatik jasotako ordainsariak 3.765 eta 3.705 eurokoak izan dira, hurrenez hurren.

Zenbateko horiek 2020ko eta 2019ko ekitaldietan emandako zerbitzu-sari guztiak biltzen dituzte, noiz fakturatu diren kontuan hartu gabe.

18. OHARRA. INBENTARIOA

ELEMENTUAREN DESKRIBAPENA	Eskurapen- data	Eskurapen- balioa	Aldakuntzak balioztapenean	Narriaduraren, amortizazioen eta abarren ondoriozko galerak	Bestelako egoerak (G, F, D)*
Informatika-aplikazioak - ERP programa	01-2011	10.856	-	(10.856)	F
Informatika-aplikazioak - WIKI plataforma	03-2012	5.074	-	(5.074)	F
IBILGETU UKIEZINA GUZTIRA		15.930	-	(15.930)	
Altzariak	05-2016	3.316	-	(1.548)	F
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	01-2008	1.129	-	(1.129)	F
IBILGETU MATERIALA GUZTIRA		4.445	-	(2.677)	
Fiare bankuko partaidetza	2016	633	-	-	F
Osarteko partaidetza	2017	1.712	-	-	F
EPE LUZEKO FINANTZA- INBERTSIOAK GUZTIRA		2.345	-	-	
GUZTIZKO OROKORRA		22.720	-	(18.607)	

* Zamak (G), norberaren helburuetarakoak (F), fundazioaren zuzkidura (D)

19. OHARRA. ITXIERAREN ONDORENGO EGITATEAK

2020ko ekitaldia itxi zenetik urteko kontu laburtuak formulatu diren arte, ez da kontuetan eragina duen gertaera nabarmenik izan, ezta aipatu behar den bestelako jazoerarik ere.

Arrasate, 2021ko martxoaren 22a

Leherdaria

Idazkaria

Administratzailea

44

